

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Elkarrekin doazenak



ARITZ GALARRAGA

Eta maitasuna bada, Badiouren hitzetan, biren artean mundua esperimentatzea –berak dio bi, baina esan dezagun hiru, lau, nahi beste–, norbere bulkada soiletik haragoko mundu bat eraikitzea, diferentzia zer den probatzea, zer litzateke, ez bada gauza antzekoa, laguntasuna? Badiou: “maitasunak, iraupenean batez ere, laguntasunaren ezaugarri positibo guztiak ditu. Baina maitasuna lotuta dago bestearen izatearen osotasunarekin”. Diferentzia handirik igartzen ez, eta laguntasuna zertan den harrapatzeko, liburu artera jo behar berriz.

Aristoteles, laguntasunaz sakonen hitz egin zuen antzinako pentsalaria, *Nikomakorentzako Etika* izenekoan, urrutira gabe. Laguntasun perfektua litzateke, greziarrentzat, antzeko bertutedun pertsonak lotzen dituen, bertutetsuak baizik ez baitu ongia helburu beretzat eta lagunarentzat. Eta bakarrik beteko litzateke parte hartzen duten pertsonak aurkitzen badute tarteko puntua. Berdinen arteko laguntasun nobleak, gainera, ez luke lortuko soilik lagunentzako onura, baizik eta halaber hiritarren bizibidearena. Laguna da beste ni bat. Lagunak dira elkarrekin doazen bi –berak dio bi, baina esan dezagun hiru, lau, nahi beste–. Adiskidetasun bete, hartara, gizaki onen eta bertuteari dagokionez antzekoak diren gizakiena da. Montaigne iritsi zen arte. Etienne de La Boetie lagunari eskaini zizkion hitzak gogoan: “Hura baitzen; ni bainintzen”. Alegia, elkarren diferentziaren ezagutzan, onarpenean, errespetuan datza laguntasuna. Lagunak elkarrekin doazenak dira, bai, ados, baina desberdintasunean. Kontxo, Badiouk maitasunaz zioen gauza bera.

Platonen nahiago izan zuen, maitasunaren aurretik, laguntasuna. Virgiliok garrantzi handiagoa eman zion laguntasunari, maitasunari baino. Ea ez ote dauden, maitasun-laguntasun, laguntasun-maitasun, elkarrengandik hain urruti. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



UPNren krisia

Espainiako Kongresuan lan erreformaren alde bozkatzeko eskatu zien UPNk bere bi diputatuei. Ordinetan, Iruñean Enrique Maya UPNko alkatea gaitzesteko egina zuen eskaera kendu egin zuen PSNk. Sayas eta Adanero diputatuek, ordea, lan erreformaren aurkako botoa eman dute eta krisia piztu da UPN barruan.

Pello Zabala

Otsailaren 2an hil zen Pello Zabala idazle, meteorologo, irratiko esatari eta fraide frantziskotarra, 79 urterekin. Amezketan jaioa, 10 urterekin Arantzazura ikastera joan eta 20 urtetatik egon zen bertan. Apostoladutzarekin batera, bere bizitzako puntu nabarmenenak musika eta euskaraz idaztea zirela esaten zuen.

